

## **8. ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK HERRI BIDEETATIK KENDU, IBILGETU ETA GORDETZEAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

### **I. OINARRIA ETA IZAERA**

Erandioko Udalak ibilgailuak herri bideetatik kendu, ibilgetu eta gordetzearen gaineko zerga ezarri eta eskatuko du Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan agindutakoari jarraituz.

### **II. ZERGAGAIA**

#### **1. ARTIKULUA**

Honako udal zerbitzu honek gauzatzen du zergagaia: zirkulazioko arauak hautsita, ibilgailua kalean bertan behera utzita edo beste edozein arrazoiren bidez zirkulazioan traba eragiten duten ibilgailuak herri bideetatik kendu, ibilgetu eta gorde beharrak sorrarazitako lanak burutzeko baliabide materialak eta giza-baliabideak erabiltzea.

### **III. TASAK ORDAINDU BEHARRA**

#### **2. ARTIKULUA**

Aurreko artikuluan adierazitako zerbitzuak emateak sorrarazten du tasak ordaindu beharra.

### **IV. SUBJEKTU PASIBOA**

#### **3. ARTIKULUA**

1. - Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasa honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorrek 34. eta 35. artikuluetan aipatzen dituen erakundeak, Ordenantza honetan araututako zerbitzuak eskatuz gero, edota zerbitzuen onuradun edo zerbitzuak ukitutakoak izanez gero.

2. - Administrazioaren jarduera edo zerbitzua subjektu pasibo jakin bati dagokiola esango dugu ondorengo kasuetan: jarduera edo zerbitzua, zuzenean nahiz zeharka, subjektu horrek eragin duenean, hau da, berak egindako jarduerengatik zein berak egin gabe utzitakoagatik, jarduera edo zerbitzu jakin bat udalak burutu behar duenean.

### **V. ZERGA OINARRIA**

#### **4. ARTIKULUA**

Oinarri zergagarria honako honek osatzen du: gauzatu beharreko zerbitzuak nahiz jarduerak duen benetako kostua edo aurreikusitako kostua, zuzeneko gastuak eta zeharkakoak kontuan izanik. Zerbitzuaren edo jardueraren kostuan sartuko dira finantza izaerako gastuak, ibilgetuaren amortizazioa eta aplikagarri diren bestelako gastu orokorrak ere. Horrez gain, kontuan hartuko da, baita, burututako zerbitzua edo jarduera zein motatatakoa eta zein ezaugarritakoa den, hala nola ibilgailu mota eta tasa ordaindu beharra duten subjektuen ahalmen ekonomikoa ere.

### **VI. ZERGA KUOTA**



## 5. ARTIKULUA

Ordaindu beharreko kuota ondorengo tarifen arabera izango da:

### 1.- IBILGAILUAK HERRI BIDEETATIK KENTZEAGATIK:

1.1.- Bizikletak, ziklomotoreak.....	24,00 €
1.2.- Motozikletak, gurdi-motorrak eta antzeko ibilgailuak .....	35,00 €
1.3.- Turismoak, kamionetak, furgonetak eta antzekoak .....	71,00 €
1.4.- Gainontzeko kasuetan, kontratatutako zerbitzuak sorrarazitako gastuen arabera kalkulatu da tarifa.	
1.5.- Garabiaren irteera, garabi zerbitzua sortzen denean, zerbitzua sorrarazi duenak ordaindu beharrekoa .....	28,00 €

### 2.- IBILGAILUAK UDAL GORDAILUETAN EGOTEAGATIK EGONALDIAREN LEHENENGO EGUNEKO HAMABIETAN HASI ETA JABEAREN ESKU UTZI ARTE, EGUNEKO:

2.1.- Bizikletak, ziklomotoreak .....	1,00 €
2.2.- Motozikletak, gurdi-motorrak eta antzeko ibilgailuak .....	3,00 €
2.3.- Turismoak, kamionetak, furgonetak eta antzekoak, 1.500 kilora arteko tara dutenak .....	6,00 €
2.4.- 1.500 kilotik gorako tara duten ibilgailuak .....	12,00 €

### 3.- IBILGAILUAK IBILGETZEAGATIK:

3.1.- Bizikletak, ziklomotoreak .....	7,00 €
3.2.- Motozikletak, gurdi-motorrak eta antzeko ibilgailuak .....	10,00 €
3.3.- Turismoak, kamionetak, furgonetak eta antzekoak, 1.500 kilora arteko tara dutenak .....	25,00 €
3.4.- 1.500 kilotik gorako tara duten ibilgailuak .....	38,00 €

### 4.- IBILGAILUAK HERRI BIDEETAN GARABIAUTOZ LOTZEAGATIK:

4.1.- Bizikletak, ziklomotoreak .....	8,00 €
4.2.- Motozikletak eta antzeko ibilgailuak .....	13,00 €
4.3.- Turismoak, kamionetak, furgonetak eta antzekoak, 1.500 kilora arteko tara dutenak .....	32,00 €
4.4.- 1.500 kilotik gorako tara duten ibilgailuak .....	38,00 €

## VII. SALBUESPENAK

### 6. ARTIKULUA

Tasa ordaintzetik salbuetsiak izango dira lapurtutako ibilgailuak; horretarako, interesatuak lapurretatik jarritako salaketaren kopia aurkeztu eta egiaztatu beharko du izandako lapurreta.

## VIII. KUDEAKETA

### 7. ARTIKULUA



Ibilgailuen gordailutzari ez zaio amaierarik emango harik eta dagokion tasa ordaindu arte.

## **8. ARTIKULUA**

Tasa aplikatzeak ez du kentzen zirkulazio arauak zein udaltzainen aginduak hausteagatik bidezko litekeen zigorrik.

## **IX. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

### **9. ARTIKULUA**

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 196. artikuluan eta ondorengoetan xedatua izango da aplikagarri zergei buruzko arau hausteen sailkapenari eta zehapenei dagokienez.

## **X. XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

## **XI. AZKEN XEDAPENA**

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udaltzaria Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.